

Pandemiaren ondorioz ezarritako neurriek erabat baldintzatu dute eski denboraldia. Bisitarien faltan, estazio askok ezin izan dituzte ateari ireki. Larra-Belaguan txanponaren beste aldea ezagutu dute: inoiz baino nafar gehiago ibili dira.

Larra-Belagua, pozik; gainerakoak, ez

Zihara Jainaga Larrinaga

E lur urtea gari urtea izaten dela esan ohi da. Aurten, nahi adina elur egon da, eta, ondorioz, garia egongo dela dirudi, baina egoera ez da inolaz ere arrunta izan eski estazioetan. Eskiatzaileen falta handia sumatu dute. Hala, eski estazioetako arduradunek, oro har, adierazi dute denboraldia «txarra», «galdua» izan dela. Konfinamendua eta mugen itxierak iritsi zirenerako azpiegiturak prestatzen ari ziren, denboraldi eta egoera berrira egokitzeko,



Formigalgo estazioa urtarrilean; hutsik. Egoeraren ondorioz, ezin izan dute ireki. EFE

baina gehienek ez dute lortu irekitzea. SARS-CoV-2 birusak aurre hartu dio elurrari. Hala, gutxi izan dira elurra zapaldu eta geruza gainean irristatzera iritsi direnak. Euskaldunen artean oso zabaldua dagoen zaletasuna da eskia, baina aurtin milaka eskiatzaile etxean gelditu behar izan dira. Hala, itxiera perimetralaren ondorioz, nafarrek soilik izan dute beraien lurraldean eskiatzeko aukera.

Izabako (Nafarroa) Larra-Belagua eski estazioan, Ana Lusarreta estazioko zuzendariak adierazi duenez, denboraldiaren balantze ona egin beharrean daude: «Ez genuen espero denboraldia hain ona izango zenik. Gaur

egungo egoerarekin, koronabirusarekin, ezin genuen ezer onik espero. Baina egoera guttiz bestelakoa izan da». Hain zuzen, Nafarroako Gobernua ezarria duen itxiera perimetralak on egin die. Beste erkidego batzuetatik jendea hartu ezin izanak, era berean, eski alpinoa egin ohi duten nafarrak bertan gelditzea ekarri du. Hots, iraupen eskia egitearekin konformatu behar izan dute, eta, hala, Larra-Belagua inoiz baino jende gehiago hartu du. «Egun-egoerari eta itxiera perimetralari esker, batez ere Nafarroan ezagutu ahal izan gaituzte», adierazi du Lusarretak. Azpimarratu du iraupen eskiko eskaera nabarmen handitu dela beste urte batzuekin alderatuz.

Egoerak eskatutako neurriak bete behar izan dituzte une oro Larra-Belaguan. Erabiltzaileek maskara jarrita eduki behar izan dute esta-

zioko txoko guztietan. Horrez gainera, eraikin nagusiak ezin izan dira erabili sarrerak eta alokairuak ateratzeko ez bazen. Ostalaritza irekita edo itxita egon da Nafarroako Gobernua une oro erabaki duenaren arabera. Sarrera eta irteera ibilbideak markatu dituzte, eta gune bakoitzean edukiera kopuru berriak errespetatu behar izan dituzte. Hori guztia kontuan izanik ere denboraldia salbata dutela eta, pozik dago Lusarretak: «Erabiltzaile asko izan ditugu; gogobeteta gaude». Hala, azpimarratu du oraindik ere estazioa irekita egongo dela beste hiru astez, iraupen eskia egin nahi duten nafarren zain.

Nouvelle Pyrenees taldeak zortzi eski estazio kudeatzen ditu Okzitaniako Pirinioetan: Cauterets, Gourette, Grand Tourmalet, Luz Ardiden, Peyragudes, Piau, Pic du Midi eta Arette-San Martingo Harria. Guztira, 400 kilometrotik gora eskiatzeko. Baina horietatik bi soilik ireki ahal izan dituzte aurtengo neguan: Cauterets eta Arette-San Martingo Harriak. Eski nordikoa egiten da estazio horietan, hain zuzen. «Taldeen balantzea txarra da, ez dugula ia batera jarduerarik izan», adierazi du Guillaume Roger operazio zuzendariak. Urte arrunt batean bi milioi erabiltzaile izaten dituzte Okzitaniako Pirinioetan; aurtin,

berri, 50.000 erabiltzaile izatera ere ez dira iritsi. Abenduaren erditik martxoaren bigarren astera aritu dira Nouvelle Pyrenees taldeko estazio biak martxan. Beste seiak Frantziako Gobernuaren erabakiz egon dira itxita, ostalaritza eta kultur guneak bezala.

Cauterets eta Arette-San Martingo Harria estazioetan Larra-Belagua antzeko zerbait pasatu zaie. Eski alpinoa egin ezin izan duen jendeak iraupen eskia egin du. Hala, San Martingo Harria estazioak iraupen eskia egin duten 11.000 erabiltzaile hartu ditu. Rogerrek adierazi duenez, alor horretan, aurreko denboraldiarekin alderatuta, %20 edo %25eko hazkundea izan da. «Urte arrunt bateko eski alpinoarekin alderatuz, baina, erabiltzaile kopurua mikroskopikoa da», adierazi du Rogerrek.

Datorren urteari begira

Candanchuko eski estazioa da (Aragoi, Espainia) Euskal Herriko eskiatzaileen kutunetako bat: eskiatzaileen erdia inguru euskal herritarrek dira. Aurtin, baina, euskaldunak ezin izan dira beraien lurraldeetatik irten, eta nolabait eragina izan du Aragoiko eski estazioaren denboraldian: ezin izan dute ireki ere egin.

Estazioko iturriek adierazi dute denboraldiaren balantzea «oso txarra» izan dela: «Ezin izan dugu ireki, gure balizko erabiltzaile kopurua oso txikia zelako. Ekonomia-aren ikuspuntutik ez zen bidegarria irekitzea», adierazi dute. Halaber, gaineratu dute, elurrari dagokionez, elur denboraldi ona izan dela, eta denboraldi arrunt batean oso positiboa izango zela haran osorako.

Aramon taldeak, bestalde, Aragoiko (Espainia) lau eski estazio biltzen ditu: Cerler, Formigal-Panticosa, Javalambre eta Valdelinares; 289 kilometro guztira. Hauek ere ez dituzte pistak ireki, eta galdutzat eman dute denboral-



Denboraldi hau ez da batera ona izan, baina gu hurrengo denboraldian irekitzeko ari gara lanean»

Candanchu eski estazioa

«Urte arrunt bateko eski alpinoarekin alderatuz gero, erabiltzaile kopurua mikroskopikoa izan da aurtin»

Guillaume Roger
Nouvelle Pyrenees taldeko operazio burua

dia. Otsailean argitaratutako prentsa ohar batean ziotenez, neguan eski estazioak itxita mantentzea erabaki zuten: «Eski-denboraldiaren egoera aurreratua eta mugikortasun-murrizketen ondorioz, irekiera ez da ekonomikoki bidegarria». Gainera, Aramon enpresako 900 langileak ERTE batean daude joan den azarotik. Enpresaren arabera, espediente hori langileak eta enpresaren etorkizuna babesteko aurkeztu zen.

Candanchun Gabonak baino lehenagotik ikusi zuten Huescako herritarrentzat bakarrik irekitzea ez zela bidegarria; azterketa egin zuten. Pandemiaren bilakaeraren arabera, murrizketak nolabait malgutzera espero zuten, Aragoi osoko bezeroak hartu, eta, hala, eski estazioa irekitzea. Neurriak, baina, martxoaren erdialdera hasi ziren malgutzen, eta, ardura-dunen esanetan, oso denboraldi laburra geratzen zen. «Elur-galera izugarria zen orduko. Beraz, ez genuen irekitzeko aukerarik».

Datorren urtera begira jarrita dute burua Candanchun eta Aramon taldeko eski estazioetan. «Argi dago denboraldi hau ez dela batera ona izan, baina gu hurrengo denboraldian aritzeko ilusio eta interes berarekin ari gara lanean», adierazi dute Candanchukoek.



Egungo egoerari eta itxiera perimetralari esker, batez ere Nafarroan ezagutu ahal izan gaituzte»

Ana Lusarreta
Larra-Belagua estazioko zuzendaria

«Denboraldiaren egoeraren eta murrizketen ondorioz, irekitzea ez da izan ekonomikoki bidegarria»

Aramon taldea

